

Gure altxorra

Herria ezagutzen



4



ARGITARATZAILEA: Errenteriako Udala. Euskara Zerbitzua

EGILEA: Hik Hasi Euskal Heziketarako Aldizkaria (Arantxa Urbe)

MAKETAZIOA: Antza komunikazio grafikoa

ILUSTRAZIOAK: Juan Luis Landa

ARGAZKIAK: Errenteriako Udal Artxiboa, Oarso, Errenteriako Udal Ingurumen Saila,
Auzolan Sokatira Taldea, Hibaika Arraun Taldea, Sara Carracelas, Luis Elberdin eta Hik Hasi

L.G: SS-990-2010

Inprimatzailea: Antza komunikazio grafikoa

OHARRA:

7. orriko irudia Rodriguez Tejeroren altzairu-grabatua da.

1

Ezabatu, zure ustez, herriari ez dagozkion adjektiboak.

Euritsua, lehorra, berdea, menditsua, hezea, jendetsua, kutsatua, zaratatsua, iluna, argia, garbia, aberatsa, industrialia, lasaia, alaia, kirolzalea, modernoa, zaharra, naturala, koloretsua, eguzkitsua, kirolaria, basotsua, atsegina.

2

Adjektiboak, batik bat, gauzak deskribatzeko zaizkigu baliagarri. Osa ezazu herriari buruzko azalpen testua aukeratu dituzun ahalik eta adjektibo gehienak erabiliz.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

3

Ipini ezagutzen dituzun herriko mendien izenak:

.....

4

Hemen errekenak eta ibaienak:

.....

5

Zein auzotan daude parke hauek?



.....



.....



.....



Oiartzun ibaiak herria inguratzen zuen. Baina ez du gaur egiten duen ibilbidea egin beti. Behatu marrazkia, ibai ingurua bereziki. Zein elementu zeuden lehen ibai bazterrean?

.....

.....

Eta gaur egun, zein elementu daude ibai ertzean?

.....

.....

Lehenengo errepidearen eta ondoren trenbidearen bideek ubidea estutu zuten. Gainera, urte askotan ez zuten ibaiaren ingurua garbitu. Beraz, urak jaisten zituen lohi, harri eta zikinkeriak ubidearen hondoan eta bazterretan pilatuz joan ziren.

Zein ondorio uste duzu izango zuela horrek guztiak?

.....

.....

.....

.....

.....

.....



Esaera zaharrak dio: **“Egiak eta urak beti beren bidea egiten”**.
Zer esan nahi ote du horrek?


Uholde bortitzak ezagutu zituen herriak hainbat urtetan. Oiartzun ibaia sartu zuten ubide estutik atera eta herriko kaleetan zehar bilatzen zuen bidea. Uholdeek hildakoak utzi zituzten. Eta baita kalte material ugari ere.

Euri erauntsiak hasten zirenean, ibaia zelatatu behar izaten zuten herritarrek kezkatu. Azkenean, Oiartzun ibaiari ibilbidea aldatu zioten, ubidea zabaldu zuten eta zubiak eraiki zituzten. Meandro bat lehortu zuten, eta ubide berria egiteko Ugarritzako zumardi ederrari kendu zioten puska. Lehortutako meandroaren gainean, Papelerak eraikuntza gorriak eraiki zituen.

Hona hemen Biteri kalean uholdeetako urek hartu zituzten altuerak:

1915eko apirilaren 10a	1,03 m.
1917ko irailaren 8a	0,38 m.
1932ko abuztuaren 27a	0,70 m.
1933ko ekainaren 16a	3,15 m.
1933ko urriaren 23a	3,65 m.
1985eko ekainaren 19a	0,65 m.

Ondoko irudiaren gainean marrazten badituzu urek zein maila hartu zuten ikusiko duzu!





Udallerriaren iparraldean
 ibaia igarotzen da eta hegoaldean, berriz,
 ibaia.

Mapari begiratu, gure udalerriko errekek ibai
 berean isurtzen ote dute? Ba ote dago erreken
 arteko mugarik, zein?

.....

Udallerriak bi isurialde ditu. Isurialdeen banalerroa,
 berriz, Zaria-Aldura mendikatea da.

Eta orain, aterako al zenuke honen guztiaren
 ondorioa?

ONDORIOA:

.....

Oiartzun ibaia Pasaiako Portuan itsasoratzen da, eta Urumea ibaia

.....

Zer esan nahi du “Erreketako urak ibaira isurtzen dira”?

Ezagutzen al duzu udalerriko erreka bat?


Oiartzun ibaian ibairatzen dena:

Urumea ibaian ibairatzen dena:

Ikusten al ditugu Oiartzun ibaira isurtzen diren errekek? Zergatik? Non daude?

.....

Eraiki herria eta errekek ezkutatuko dira!



Orain badakigu erreka non amaitzen diren... Baina non hasten ote dira?

Errekako urek errekaen urak jasotzen dituzte. Errekastoak mendi tartetan euri-ura pilatzen denean sortzen dira.

Errekastotik erreka, errekatik ibaira.

Beraz, mendi aldera jo beharko dugu erreka non jaiotzen diren ikusteko.

GURE MENDIAK

X Grabatua ikusirik zer esango zenuke:

Eremu menditsuan bizi gara.

Gure inguruko mendiak altuak dira.

Eremu lauan bizi gara.

Mendixkaz inguraturik gaude.

Ezagutzen ote ditugu gure mendiak?

Bildu taldeka eta gure herriko ahalik eta mendi gehienen izenak eta garaierak biltzen saiatu mapetan, liburuetan, Interneten begiratzuz edo jendeari galdetuz: mendizale asko ditugu-eta herrian!

.....

.....

.....

.....

Ederra lagunekin aritzea! Orain bakarrik bete taula.

Ezagutzen nituen mendiak

.....

.....

.....

.....

Izan naizen mendiak

.....

.....

.....

.....



Ez gara gu udalerrian bizi garen bizidun bakarrak! Gure kaleetan, mendietan, ibaietan, erreketan, basoetan eta beste hainbat txokotan beste animalia eta landare asko bizi dira.

Denok dugu denon beharra bizirauteko. Horregatik, haiek zaintzea eta babestea da gure egitekoa, aldi berean gure burua zaintzen eta babesten ari baikara.



Zein animalia imajinatzen duzu bizi direla udalerrian?

	BAI	EZ
	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

Arretaz entzun eta imajinatu duzuna ala den edo ez markatu.

Udalerrian bizi direla imajinatu ez dituzun animaliak:

.....

Animaliekin batera, landareak ditugu.

Landaredia aberatsa ote dugu herrian?

BAI

EZ

Azter dezagun... Horretarako www.errenteriaenverde.net/arboles-plantas/index.htm orrialdea erabil dezakezu.


Zenbat zuhaitz mota daude?

Zeintzuk ezagutzen dituzu?

Eta zein dira ezagutzen dituzun landareak?

Ba al dakizu belar gehiagoren izenik?

Sendabelar gehiago ezagutu ditugu. Baita haiek nola erabili ere. Zuen etxean erabiltzen al duzue sendabelarrik? Nola erabiltzen duzue? Hasi galdezka!



Orrialdeko zuhaitzekin eta belarrekin jolas egin dezakezue. Ea norak asmatzen dituen fin-fin izen gehiago, zein auzotan dauden... astindu irudimena eta proposatu zuek zeuen jolasak!

10 PARKEAK

Azken urteetan parkeak eraiki dira gure auzoetan. Gehienak, lantegi zaharren orubeak, antzinako trenbideak eta zelaiak baliatuz. Hauek dira herrian ditugun parkeak:

LARTZABALEN: Lartzabalgo parkea.

FANDERIAN: Fanderiako parkea.

GABIERROTAN: Nafarroako parkea.

GAZTAÑON: Arramendi.

ERDIALDEAN: Agirre Lehendakariaren plaza,
Zumardia, Foru plaza,
Gaztelutxo, Patxiku zelaia,
Senidetutako herrien plaza,

GALTZARABORDAN: Parkea.

KAPUTXINOETAN: Kaputxinoetako parkea

ALABERGAN: Alabergako zuhaztia.

IZTIETAN: Diputazio plaza.

Nahikoa parke ote ditugu herrian... eztabaidatu taldean.

Parke guztiak ez dira berdinak: landaredia desberdina dute, espazioak, elementuak eta zerbitzuak ez dira parke guztietan berak.

Zenbait parkek, gainera, ezaugarritzen dituzten osagaiak dituzte. Araka ditzagun, ea zer topatzen dugun!

Taldeka bildu eta aukera ezazue parke bat: gustukoena duzuen, zuen auzokoa, ikastetxetik hurbil dagoena edo nahi duzuen.

Beha ezazue eta, ondoren, hartu dituzuen oharrak ordenatu eta lagunei aurkezteko deskribapen testua osatu. Ez ahaztu argazkia ere ipintzea.



Orain arte aztertutako parkeak herrigunean daude.
Herrigunetik kanpo beste bi parke garrantzitsu ditugu.

LAU HAIZETA PARKEA

Parke hori, gure herriko lurrez gain, Astigarragakoek eta Donostiakoek osatzen dute.
Herriguneeetatik gertu dagoen gune naturala izanik, jolaserako eta aisialdirako espazio irekien gabeziari konponbide bat ematearren, ingurua lehengoratu eta zaindu egin nahi da.

Zer egin beharko litzateke horretarako?

Ezabatu parke honetan ez dauden elementuak:

Ibaia - San Marko - Txoritokieta - Haitzuloak - Bidegorria - Monumentu megalitikoak - Lorategiak

AIAKO HARRIA PARKE NATURALA

Gure herriko goi lurrez gain, Hernanikoek, Donostiakoek, Oiartzungoek eta Irungoek osatzen dute parkea. Bertan, aisialdirako bost atsedeen-eremu ditugu: Listorreta, Barrengoloia, Malbazar, Pagotzarte eta Otraitz.

Parke Naturalaren helburu nagusia basoaren kudeaketa da: baso helduak lortzera bideratzea, gaur egun mendeetan ustiatutako basoak baititugu. Bestalde, habitat naturalak zaharberitzen ari dira ugaztun basati mehatxatuak Pirinioetara sar daitezzen.

BA AL ZENEKIEN?

- ✓ Añarbeko basoa Errenteriako Udalarena eta gu guztiona dela osorik eta antzina-antzinatik?
- ✓ Añarbek herriko kliman eragiten duela, ura eta bioaniztasun maila handiak eskaintzen dizkigularik?
- ✓ Bioaniztasunaren gainean egiten ari diren inbentarioen emaitzek Añarbek eskualdean eta lurralde osoan duen garrantziaren berri ematen ari direla?
- ✓ Fauna eta floraren espezie berriak agerian uzten ari direla, horietako asko ongi kontserbatutako baso helduetan soilik aurki daitezkeelarik eta eskakizun ekologiko handiak dituztela?
- ✓ Gipuzkoako eta Bizkaiko hariztirik handiena dela?
- ✓ Hegazti migratzaileentzako atsedeen gunea dela haien bidaiara luzean?
- ✓ Eta nortzuk bizi dira han?
Basakatua, Katajineta, Erbinudea, Azkonarra, katagorria, muxar grisa, orkatza, basurdea, okila, hontza, urubia, izokina, kukulumera, amuarraina, aingira, ezkalua, igela, apoa, uhandrea, ur-sugea, martin arrantzalea, kuliska, ipurtatsa...

Saia bezalako espezie haratusteljaleak ere etortzen dira!



Egin klik
Añarbeko irudi
gustagarrienari!



SUSPERREGI



1

Higadura zuzendua



2

Urmaela



Norteko tren-bideari jarriyak

Milla zortzireun irurogei ta
zazpigarrengo urtian,
lenengo trena ikusi nuen
España'ko partian,
bire pixka bat bistan pasa ta
iñoiz sartua lurpian;
perra berriyak erantxi dizte
andikan orañ artian.

Modu orretan jarri zuenak
Norteko ferrokarrilla,
jakinduriya aundiya zuen,
entendimentu abilla;
gizonik eziñ asi liteke
zaldi obiaren billa:
goizian irten Irun'dik eta
illuntzerako Madrilla.

Juan Manuel Lujanbio, Txirrita

NORTEKO TRENA

1864an hasi zen martxan. Aldaketa handiak ekarri zituen. Oiartzun ibaia zeharkatzeko burdinazko zubia egin zioten eta horrek behin betiko ito zuen nabigazioa. Hasierako trenak lurrun bidez ibiltzen ziren.

TOPOA

1912an hasi zen. Hendaiatik Donostiara joaten ziren, eta bidearen zati handia lur azpian egiten duelako deitu zioten topoa. Tunelak kez ez betetzeko, hasieratik argindarraren bidez ibiltzen da. Trenbide estuko trena da.



ARDITURRIKO TRENA

Meategietatik Pasaiaiko portura eramaten zuen mea. Han, zubi berezi baten bidez itsasontzien sotora husten zuten. Trenbide horretako zati asko gaur egun bidegorriak dira.



Aukeratu esaldi bakoitza zein treni dagokion.

	NORTEKOA	ARDITURRIKOA	TOPOA
Herrian hiru geltoki ditu.			
Bidegorria haren trenbidean egin zen.			
Oiartzun ibaiaren gainetik igarotzen da.			
Jendea garraiatzeko da.			
Trenbide estukoa da.			
Gasteizeraino eramango zaitu.			
Ez da sekula lurrinarekin ibili.			

1 LEHEN GARRAIOA

1888. Zaldiz mugitutako "autobusa" Benta-Berriraino iristen zen.

3 TROLEBUSA

1953. Argindarrez mugitzen ziren autobusak.

2 TRANBLIA


1897. Argindarrez mugitutako tranbiak.

4 BUSAK

1973. Erregeaiez mugitzen diren autobusak.



Urte askotan Biteri-txikia errepede nagusirako irteera izan zen, Zumardia bitan banaturik zegoen. Han zegoen geltokia. Orain, oroigarri, plaka aurkituko duzu.



Batetik bestera ibili behar duen lagunak laguntza behar du, eskainiko al zenioke informazioa?

DONOSTIA		→ €	
		→ € ←	
		→ €	
		→ € ←	
		→ €	
		→ € ←	
		→ €	
		→ € ←	

IRUN		→ €	
		→ € ←	
		→ €	
		→ € ←	
		→ €	
		→ € ←	
		→ €	
		→ € ←	

16 MENDIZALEAK

Mendizaletasun handia dago herrian. Urdaburu Mendizale Elkarteak mendiarekin lotura duten hainbat jarduera antolatzen ditu.

Eskola-adinean dauden haur eta gazteen artean mendizaletasuna bultzatzeko saila dauka.




Eta zuek gogokoa al duzue mendia? Zein menditara joan zara?

HERRI KIROLAK

Ipini kirol bakoitzari bere izena

Aizkolaritza
Harri-jasotzea
Sega
Idi dema
Trontza



Garai batean hainbat sokatira talde zeuden herrian. Gehien bat, inguruko herrietako taldeekin egiten zituzten tiraldiak.


Zamalbide auzoko Auzolan Sokatira Taldea txapelketetan ibiltzen da.



Azalduko al zenuke nola aritu behar duen sokatira talde batek eta zein arau dituen tiraldiak?



Pilotak indar handia izan zuen herrian. Hainbat pilotari ospetsu izan zen. Urte askotan frontoi bakarra izan genuen herrian, Niessen Merkatalgunea dagoen lekuan zegoen. Hura bota eta beste bat eraiki zuten Fanderian. Bertan dago pilota eskola.

 Gaur egun ba al daude pilotaleku gehiago? Non?

.....

.....

.....

.....

.....

ARRAUNA

Gure aurrekoak nabigatzaile ospetsuak izan ziren, batzuek urruneko itsasoak zeharkatu zituzten. Hibaika Arraun Taldeko traineruak zeharkatzen ditu Oiartzun ibaiko eta Pasaiko portuko urak. Kontxako estropadan ere parte hartu dute: seigarren eta bosgarren postuan geratu ziren. Arraun eskola ere badute, Hiltegi zaharrean dago: neskak zein mutilak aritzen dira arraunean.

 Ba al dakizu zein koloretakoa den Hibaikako trainerua?

.....

 Zergatik ote du kolore hori?

.....

 Herri kirolek antzinako lanbidetan dute jatorria. Zein lanbidetatik eratorri ote da arrauna?

.....

.....

.....

.....





Idatzi ezagutzen dituzun herriko futbol taldeen izenak:

.....
.....
.....

Touring Futbol Taldea izan da maila gorena lortu duen herriko taldea. Denbora gutxiz izan bazen ere Espainiar ligako Bigarren B mailan aritu zen.

Touring 1923an sortu zen. Urte batzuetan jarraitzaile asko izan zituen: herrikoak eta baita herri-
tik kanpokoak ere.

Garai hartan, Touring-ek irabazten zuen igandeetan Zumardia lepo betetzen zuten dantzaldien
amaieran Touring-en ereserkia jotzen zuen Udal Musika Bandak.

Lartzabalgo futbol zelaian jokatu zuen Touring-ek 2000n zelaia desagerrarazi zuten arte etxeak
egiteko.



Futbolari ezagunak izan ditugu herrian. Ea zenbaten izenak biltzen dituzuen.

.....
.....
.....

ESKUBALOIA

Eskubaloia jarraitzaile eta jokalaria asko dituen kirola izan da.

Ereintza Eskubaloi Taldea izan zen Gipuzkoan kirol horretan hasi zen lehenengoetako taldea.

Ereintza aitzindaria ere izan zen emakumeen eskubaloi taldeak antolatzen.

Talde horretan aritutako herriko jokalaria asko, emakumeak zein gizonak, eskubaloiko maila
gorenetera iritsi dira: Juantxo Villarreal, Gabriel Mitxelena, Jose Ignacio Altube, Reyes Carrere
eta Amaia Ugartemendia, besteak beste.

Zenbait urtetan, auzoen arteko eskubaloi lehiaketa antolatzen zen.

Ereintzaz gain izan dira beste talde batzuk, baina desagertu ziren. Horien artean indar handie-
na izan zuena Oarso Eskubaloi Taldea izan zen.



Zein da eskubaloiak egin duen ekarpen garrantzitsuena?

.....
.....
.....
.....
.....



GureGipuzkoa.net / Carrera de Cross en Errenteria / © CC-BY-SA: FOTO CAR. RICARDO MARTIN.

Club Atletico Renteria (CAR) 1957an sortu aurretik, herriko zenbait elkartek eta ikastetxek bazituzten beren atletismo taldeak: Touring-ek eta Urdaburuk, adibidez.

Gabierrotan egon zen atletismo pista, egun Gabierrotako pasealekua dagoen lekuan, ibai ondoan.

Herriko kaleak ere lasterketak egiteko erabiltzen ziren.

Hasieran gizonezkoek soilik egiten zuten atletismoa. Talde hori aitzindaria izan zen emakumezkoen atletismoan.

Gazteen artean atletismoa sustatzeko eta edozein eskola-umeri atletismoa egiteko aukera emateko atletismo eskola dute.




Ba al dakizu non dauden atletismo egiteko pistak?



KIROL GEHIAGO


Herrian beste kirol batzuk egiten dituzten taldeak ditugu.

Guk argazkiak ipini ditugu. Lagundu bilduma osatzen eta kirolen izenak ipini.



.....

.....



.....

.....



Zein kirol egiten duzu zuk?

.....

.....



Herriko zein kirol instalazio ezagutzen dituzu?

.....

.....




Aipatu ditugun kirolez gain, ezagutzen al duzu herrian egiten den beste kirolik?

.....

.....

GALDETU GELAN: Zein kirol egiten dituzue eta zenbatek egiten duzue? Horietatik zenbat dira neska eta zenbat mutil? Datuekin osatu piramidea.

- igeriketa ————
- ————
- ————
- ————
- ————
- ————
- ————



Herriko zein kirolari ezagutzen duzu?

SARA CARRACELAS ●●●●●●●➤ **IGERILARIA**

..... ●●●●●●●➤

..... ●●●●●●●➤

..... ●●●●●●●➤

..... ●●●●●●●➤

Sara Carracelas Garcia

1981eko irailaren 15ean jaio nintzen. Erditze unean izandako arazo baten ondorioz garun-paralisia dut.

Errehabilitazio gisa igerian hasi nintzen 4 urtekin. Lehiaketetan parte hartzen hasteko esan zidaten 13 urte nituela, eta nik ezetz esan nien. Amonak “zuk nahi baduzu joan, atsegin baduzu jarraitu, eta bestela utzi dezakezu, erraza da” esan zidan. Eta hala egin nuen.

Dagoeneko lau Paralinpiar Jokoetan parte hartu dut: Atlantan, Sydneyn, Atenasen eta, azkena, 2008an Pekinen. Han, brontzezko domina lortu nuen eta munduko errekorra egin nuen 50 metro bizkarrean.

Lehen ikasketak Kristobal Gamon ikastetxean egin nituen. Ondoren, Koldo Mitxelena informatika modulu bat egin nuen.

Goizez GUREAKen lan egiten dut web orriak diseinatzeko, eta arratsaldean igerian entrenatzen naiz. Nire taldea, Dordoka Kirol Elkarte da.

Herrian aintzat hartu dute nire lana. 2007ko Madalen jaiei hasiera emateko txupinazoa nik bota nuen. Gainera, 2009an Sara Carracelas igeriketa egokituko txapelketa antolatzen hasi ziren.

Amonak aholku baliotsua eman zion Sarari. Zein aholku emango zenioke zuk?



.....

.....

.....

.....



Osatu gurutzagrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									

Ezker eskuin: 1. Pontika azpian geratu zen erreka. 2. Behorra eme, zaldia? | Azken eta lehen bokala | Kontsonantea 3. Zuhaitz mota, Sanjoanetan udaletxe aurrean jartzen dute. 4. Kontsonantea | Altzariak egiteko aproposa. 5. Gure mendi garaiena | Arditurriko trenak garraiatzen zuena (atzekoz aurrera). 6. Bokala | Bokal bera | Pagotzar... 7. Non daude parkeko loreak? 9. Zeri esker ibili ziren lehen trenak?

Goitik behera: 1. Touring-en lehen futbol zelaia. 2. Neska eme, mutila? | Lehen bokala | Bigarrena | Azkena 5. Belarrak azpian duena (atzekoz aurrera). 6. Zu zara, ni? | Edade. 7. Zuarkazu mendiaren lehen hiru letrak. 8. Sarturen aurkakoa (atzekoz aurrera). 9. Gaztañon dagoen kaskoa.



Herria ezagutzen

- 1 Nor ginen
- 2 Itsas bazterrean
- 3 Handituz
- 4 Gure altxorra
- 5 Orain, gu!
- 6 Etorriko direnak

www.ondarea-errenteria.net



Errenteriako Udala

